

Oinarriak

- Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, 3 argazki aurkez ditzake.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira:
 - Egilearen izen-abizenak, maila eta ordutegia.
 - Harremanetarako telefonoa.
- Argazkiak jasotzeko epea: Maiatzaren 2tik maiatzaren 13ra . Argazkiak digitalizatuta aurkeztu behar izango dira.
- Bidali argazkiak eta eskatutako datu guztiak e-postaz UlibarriEuskaltegiaArgazkiLehiaketa@hotmail.com helbidera, edo Ulibarri Euskaltegira ekarri:

Ulibarri Euskaltegia
Gardoki 3, 1. solairua

48008 Bilbo (Bizkaia)

- Egoitzara ekartzekotan, gutunazal batean sartuta (egilearen izen-abizenak, urratsa eta ordutegia), CD batean edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.
- Ulibarri Euskaltegiko ikasleek parte hartu ahal izango dute.
- Oporretako argazkiak izango dira.
- Beste inon argitaratu gabeak izango dira argazkiak.
- Argazkiak koloretan zein zuri-beltzean eginak izan daitezke.
- Argazkiak web orrialdean argitaratuko ditugu.
- Irabazleak nor diren maiatzaren 20an jakingo dugu.
- Epaimahaia argazkilaritzan arituak diren profesionalek osatuko dute.
- Epaimahaiak argazkiaren kalitatea eta originaltasuna hartuko ditu kontuan.
- Jasotako argazkiak Ulibarri Euskaltegiko artxiboan gordeko dira eta aurrerantzean erabiltzekotan, egilearen izena adierazita egingo da.